

# Alderdi politikoek **Bidezko Merkataritza** bultzatzeko **8 arrazoiak**






# Alderdi politikoek Bidezko Merkataritza bultzatzeko 8 arrazoiak


## 1.° **Pobreziaren eta desberdinkerien aurkako borrokaren tresna eraginkorra delako**

Pobrezia errealitate konplexua da, hainbat faktoreren ondorioa. Merkataritzak egoera hori areagotzen edo murrizten lagun dezake, merkataritzaren helburua zein denaren arabera: irabaziak handitzea edo, Bidezko Merkataritzak bere 10 printzipioen bidez defendatzen duen moduan, herrien garapena eta ingurunea zaintzea.



## 2.° **Estatuak bere egin dituen nazioarteko konpromisoak betetzea esan nahi duelako,**

2030 Agendaren bidez Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH) lortzeko asmoz. Bidezko Merkataritza funtsezko aliatua da konpromiso horiek betetzeko, 2015ean nazioarteko komunitateak adostutako 17 helburuetatik 9tan aurrera egitea esan nahi duelako. Eta, zehazki, 12. helburuan, agente publiko eta pribatu guztiek garapen-eredu jasangarri baten ereduari laguntzea eskatzen dielako.



## 3.° **Bidezko Merkataritzak "pentsatu globalki, lokalki jarduteko"**

mundu guztizko ekoizleengan, langileengan eta kontsumitzaileengan eragin positiboa duen beste merkataritza aukera bat eskaintzen duelako.



## 4.° **Bidezko ordainketa bat bultzatzen duelako,**

alde guztien artean elkarriketaren eta etengabeko partaidetzaren bidez negoziatu direnak, ekoizlek soldata duin bat jasoz eta merkatuak jasan dezakeena, gizon-emakumeek lan berarengatik ordainsari bera jasotzeko printzipioa aintzat hartuta.




## 5º **Eredu honek hamarkadak daramatzalako genero-ikuspegia gehitzen**



Bere 10 printzipioen barnean, bere egiten da diskriminazio ezaren, genero-berdintasunaren eta emakumeen ahalduntze ekonomikoaren konpromisoa. Emakumeak baztertzen ez diren eta euren partaidetzaren eta lidergoaren alde egiten duen merkataritza-eta ekonomia-eredu bat gara daitekeela erakusten du, emakumeen ahalduntzean eta berdintasunaren aurrerapenean inbertitzea funtsezko eskubidea ez ezik, garapen sozial jasangarriaren alde ere egiten duelako.

## 7º **Hiritar kontzientiak, kritikoak eta solidarioak sortzen laguntzen duelako**



Gizarte kohesionatu eta arduratsu bat nahi badugu, administrazio publikoek, dituzten eskumenen bidez, Bidezko Merkataritza ezagutarazten eta pertsonen eskubideak eta ingurumenaren zaintza lehenesten dituen beste merkataritza aukera baten garrantzia azpimarratzen laguntzen duten praktikak aktiboki bultzatu behar dute. Hiritar gisa dugun paperaren inguruko kontzientzia sortuta, ez kontsumitzaile gisa soilik, baita onberagoa, bidezkoagoa eta jasangarriagoa den mundu bat eraikitzeko subjektu aktibo gisa ere.

## 6º **Ingurumen-irizpideak printzipio gisa gehitzen dituelako**



Bidezko Merkataritzaren 10. printzipioak dio ekozleek ingurumen naturala errespetatu behar dutela euren jardunean eta ingurumenean duten inpaktua minimizatu behar dutela.

## 8º **Ekonomia sozialaren eta solidarioaren ereduaren barruan funtsezko elementu bat delako**



Bidezko Merkataritzak beste interes batzuen gainetik pertsonak, ingurumena eta garapen jasangarri eta sostengagarria lehenesten dituen mugimendu bat da.

